

Hizkuntzen eta euskararen historia soziala



**Joseba
INTXAUSTI**

Joseba Intxaustik 1957az geroztik euskal kultur munduan jardun du lanean, aldizkarien zuzendari gisara, hainbat argitalpenetan parte hartuz, eta ikerlan historikoak argitara emanez. Bartzelonako Unibertsitatean egin zituen bere Historia ikasketak (1964-1969, eta denbora batez bertan jardun zuen irakasle eginkizunetan). Historia Moderno eta Garaikidean berezitu zen. Historian bi eremu landu ditu berezikiago: EHko historia erlijioso eta Hizkuntzen Historia Soziala (HHS). UZEI terminologi ikerlegiaren sortzaile eta zuzendari izan zen (1977-1982). Talde-laneko argitalpen zabalei eman die leku: *Euskal Herria* (Euskadiko Kutzarekin, 1984-1985), *Arantzazu* (Santutegiarekin, 2001), etab. Kongresu eta Ikastaroak zuzendu ditu (EHU, Arantzazu). *Euskararen Liburu Zuria*-n (1976) historia politikoari buruzko sarrera-lana idatzi zuen (79-142. or.). Hemengo gaiarekin zerikusi zuzenagoa duten ondoko lanak gogora daitezke, gainera: *Euskara, euskaldunon hizkuntza* (Jaurilaritza, 1990; gaztelania eta frantse-sera itzulia), eta zuzendari gisara gidatuak beste hauek: *Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak* (EHU, 1993) eta *Euskararen aldeko motibazioak* (EHU, 1994).

1

1.- GAIAREN GARRANTZIA

Hizkuntzen historia sozialaren garrantziaz

«Hizkuntzen historia soziala» (= HHS), horrela izendatuta ez da ageri Unibertsitateetako curriculumetan, nahiz eta gisa batean nahiz bestean, han eta hemen, historia sozial horretako gaiak, modu solte eta sakabana-tuan, beste gai-eremuetan agertu ohi diren: historia unibertsalean, antropologian, kultur historia nazionalan, hizkuntzen eta literatura nazionalen iragana deskribatzean, etab.

Hala ere, berorren behar nabaria ukazina gertatzen ari da, adibidez Soziolinguistikak hizkuntzen presentzia soziala ulertzeko lanabes hermeneutiko berriak aurkitu eta lantzen ari denetik: gaur gero, herrien kultur iraganak aztertzekeo hizkuntzen historia sozial horri erreparatu beharra dago.

Premia hau, hizkuntzen iraganaz diharduen argitalpen-zerrenda luze batek erakusten digunaren arabera, azpimarratuta dago, gutxienez XX. mende-hasieratik hona, eta are gehiago mende horren bigarren partean, frantsesaren, ingelesaren, gaztelaniaren eta beste hainbat Estatu-hizkuntza ofizialen kasuan.

Baina hizkuntzekiko ezagumendu historiko-sozial hau are premiazoagoa gertatzen da, iragan zail baten ondorioz beren eremu eta erabilpenak «jatorrizko» lurralde, kultura eta funtzio sozialetan bizitza murriztu zaien herri-hizkuntzen historian.

Esan nahi dena ulertzeko hizkuntza-kolonialismoak sortu dituen kultur geografia berriak begiratu besterik ez da: azkeneko 500 edo 200 urteetan hor izan diren aldakuntzek dimentsio planetarioa hartu dute: frankofonia, hispanofonia, anglofonia...

1500 edo 1800eko mapa linguistikoek eta gaurkoak mundua gisa oso ezberdinetan koloreztaturik zuten eta dute. Horrek guztiak herrien arteko harremanak, kidetasunak eta lehiaketa-moduak aldarazi ditu, eta etengabe aldarazten ari da (gogora gaur egun ingelesa nola ari den sartzen Europako kontinentearen barruan, adibidez frantsesari lekua janz EBko erakundeetan eta, oro har, nazioarteko harremanetan eta kulturetan).

Hortaz, hizkuntzen iragan soziala ezagutzea gaurkotasan nabariko zerbait da, hots, egun jazotzen ari diren fenomenoak konprenitzeko baliozko tresna bat eskaintzen digu.

HHSak Euskal Herrian izan dezakeen garrantziaz

Esandakoak mundu osoan eta European ere garrantzia baldin badu, zerbait bertsua eta are gehiagokoa gertatzen da hizkuntza ofizial bakarreko Estatuetan bizi behar duten berriazko hizkuntzaren bat duten Lehen Munduko herri txiki edo handiagotan.

Izan ere, hizkuntza-kolonialismoaren hori –ñabar-dura eta ezaugarri propioekin ulertuta– ez baita gerta-

tu Hirugarren Munduko kolonialismo europar eta iparramerikarrarekin bakarrik.

A. Tovar-ek «La lucha de lenguas en la Península Ibérica» izenburuarekin adierazten zuena (1970), edo Cerateau, Julia eta Revel-ek Frantziako Iraultzari salatu zioten «glotofagia» (1974) horren adierazgarri onak dira. Eta beste adibide bat emanez: Europako iragan linguistikoa ezin daiteke uler hizkuntza zeltek izan zuten iragan zabala orain duten eremu mugatuekin alderatu gabe, eta aldakuntzaren zergatiak bilatzeke.

Euskara eta euskaldungoa ere Europako herrien iragan berezi horretan daude, ezaugarri guztiz propioekin gainera, ulertzen zaila den biziraupen luzearekin eta modernotasunerako gaitasun biziarekin.

Euskal Herriko herritarrek ezagutu egin beharko lukete Europako hizkuntzen historia soziala, orainaren eta etorkizun posibleen aurrean kontzientzia argia izan eta arduraz jokatzeko.

Zer da «Hizkuntzen Historia Soziala»?

Esan dugu: oraindik jakitate-eremu honek ez du lortu Unibertsitateetako antolamendu akademikoan bere aitoren ofizial osoa. Horregatik, komeni da «Hizkuntzen Historia Sozialaz» jardutean zertaz ari garen espresuki adieraztea, eta ondoan hurbil izan ditzakeen beste jakite-eremuetatik bereiztea.

Zer ez da HHSa?

Giza eta Gizarte-Zientzietan hainbatek hartu du giza hizkuntza bere aztergaitzak, eta horietako bakoitza hizkuntza bere ikuspuntu berezitik ikertzen saiatu da. Horrelako Zientzien artean daude Linguistika, Filologia, Psikologia, Antropologia, Soziologia, Zuzenbidea, Politologia, etab.

Hauetako batzuk, gainera, hizkuntzez bakarrik arduratu dira; hori da Linguistikaren edo Filologiaren kasua,

hark giza hizkuntzarekiko teoria orokorrak landuz eta Filologia, berriz, batez ere hizkuntzen iraganeko testuak aztertuz.

Psikologia, Zuzenbidea, Antropologia edo Soziologia ere arduratu dira hizkuntzak ikertzen, bakoitzak bere ikuspuntutik begiraturaz: adibidez, hurrenez hurren, giza psikearen garapen linguistikoak nola gertatu ohi diren aztertuz, hizkuntzen erabilpen ofizialen legeriak eta politika miatuz, hizkuntza-kodea kulturaren barnean nola txertatzen den erakutsiz edo hizkuntzak gizartean une jakin batean duen lekua deskribatuz.

Hori dena baliozkoa eta premiazkoa ere izan arren (eta batzuetan HHSarekin zerikusi oso hurbila duena), ez da HHSak azaldu nahi duena.

Zer da, hortaz, HHSa?

Hasteko, **Historia** da, hots, denboran zehar gertatu diren aldakuntzen azalpena, egon diren segidak eta etenak erakutsiz, eta aldiari sinkronian aztergai dugunaren aldaeren arrazoiak bilatuz.

Hizkuntzak aipatzean, bere adiera zabalean hartu behar da hitza: horrelaxe ezagututako hizkuntzak ditu bere gaitzat HHSak, baina baita dialektoak ere, eta pidgin, lingua franca, argot edo hizkera berezituak ere: hau da, kode linguistikoren bat darabilten hiztunak eta berauen hizkuntza-biziera soziala dira HHSaren ikergaiak.

Orobat, HHSak hiztunek bere hizkuntz(ar)en erabileran ezagutu duten mintzairaren **hizkuntzaz kanpoko gizarteko** hizkuntza-ohitura, erabilpen, garapen nahiz murriztapenen berri ematen du, hau da, hizkuntza-kodea bere barnean aztertzea Linguistika nahiz Filologiari utziz (lexikoa, gramatika, etab.), hizkuntza horrek dituen kodez kanpoko azalpen sozialak begiratzeko. Hala ere, kodeak berak aldatzean edo mantentzean, gizarte-harremanek nola eragin duten erakustea ere HHSaren barruan egon daiteke.

Horrela, hizkuntzaren kanpoko kode soziala hiztunen artean nolakoa den erakusten du HHSak: noiz eta nola erabiltzen den hizkuntza, zein azalpen sozial eta kultural dituen, halako edo bestelako barruti sozialetan edo gizarte osoan zein eta nolako lekua duen, hizkuntzaren lurraldea nola banatzen den, zein hizkuntza-politika bizi duen, etab.

Hizkuntza batek izan ditzakeen azalpen guztietako aldakuntza eta segiden deskribapen arrazoitua eman nahi du. Horren guztiaren denboraren hariko aldakortasun soziala da HHSaren eremu propioa: historia.

Hiztunek eta hizkuntzek beren gizarteak eta lurraldeak izan ohi dituzte, eta hizkuntz(ar)ekiko dituzten harat-honatak (mugak, funtzioak); hizkuntzarteko bizi-kidetza nahiz lehia ere HSSaren aztergaia dira; hortaz, hizkuntzarteko historiak ere ardura daiteke.

Hizkuntzen geografia, demografia, zuzenbidea, antropologia kulturala, politika, literatura, argitalpenak, etab. (hizkuntzaren alde soziala dakarren zernahi) HHSen bil daiteke.

HHSa Euskal Herriatik begiratuta

Euskal Herriak bizi izan duen historiagatik, eta mendeetan zehar hizkuntzari gure gizartean sortu izan zaizkion egokierengatik (egokiera onak eta txarrak, denetik), HHSak zer erakuts franko izan dezake. Hori da ondoren azpimarratuko dudana.

Zer esan dezake euskarari buruz HHSak?

Mendebaldean milaka urtetan bizi izan diren hiztun eta hizkuntza batek --euskarak-- zer erakutsi asko du, Historiak eman dion eskarmentutik. Baina iragan hori irakurtzen asmatu behar da. Irakaskuntza, hain zuzen, horretarako gune sozial aparta da, alde batetik ikerlanak sustatzeko eta batez ere dakigunaren berri eman eta taldeko gogoeta emankor bat elkarren artean egiteko.

Baina, geure eremu geografiko txikira mugatu gabe, komeni da euskararen kasua Historiako beste hainbat hizkuntzaren testuinguruan begiratzea, nahiz eta espresukiago euskararen historiari heldu.

Bestalde, dagoeneko Euskal Eskoletan euskara irakasten da (hizkuntza-kodea landuz) eta baita Euskal Literatura ere (ahozko ekarpen ederrak eta idatzizkoak), eta horretan ari direla irakasleek badute aukerarik euskararen historiako alde sozialen bat edo beste aipatzeko (adibidez, Literatura Errenazimentu eta Erreformaren testuinguruan nola jaio zen, edota Euskarak jasan dituen debeku politikoak, liburugintzaren garapena, etab.). Hala ere, argibide horiek oso zatika eta sistematikotasun gutxiz aurkeztu izan dira, nik uste.

HHSari arreta gehiago eskaintzean, ekarpen on batzuk egingo lirateke, behintzat, ondoko xede hauekin:

1. Euskararen kasua beste hainbat hizkuntzaren arteko bat dela erakutsi.
2. Munduko testuinguruan kasuak zein ezberdinak izan diren adierazi.
3. Mendebaldeko hizkuntza gutxituen artean euskararen kasuak duen interesa agerian jarri.
4. Ikertzaileentzat gaiak duen interesa azaldu.
5. Berezikiago, euskararen kasua bere osotasunean argitara ekarri.
6. Hizkuntzarena euskal historia orokorrarekin lotu.
7. Euskararen iraganaz eta orainaz kontzientzia ohar-tuago bat sortu euskal mintzatzaileen artean.
8. EH erdaldunen artean euskararen garapen sozialak argitu, pertsekuzio eta gutxiespenak ere erakutsiz.
9. Hizkuntzaren beraren historiari eta Euskal Literaturari testuinguru sozio-historiko zabalago eta sozialki errotuago bat eman.

Besteak beste, horiek izango lirateke HHSak gure Irakaskuntzan izan ditzakeen xede nagusi batzuk, Europan gaur bizirik dagoen kultura-aniztasun eta eleaniztasunari oinarri berrituak eskainiz.

Hona iristean, Jesus Altunak bere atalean egin duen bezala, nik ere bi esperientziatxo jasoko ditut, esandako hauen argigarri ere beharbada gerta daitezkeelakoan. Barka bekit, maisu horren bide beretik joatea.

HHSa neure esperientzia pertsonalean?

HHSera eraman nauten bi une eta mota ezberdinetako egokierak aipatuko ditut hemen, EHko beste zenbaiten antzeko bizipenak ere badirelakoan: bata, neure haur eta nerabazarokoa, eta bestea, ikerkuntzan gertatutakoa, biak ere nolabait Irakaskuntzarekin lotutako bizipenak.

1940-1960. urteetako Eskolan

Gerratearekin jaio nintzen, erreketek nire herrian sartu eta hurrengo astean: hala ere, nire paper ofiziale-tako lehenengo izena «Joseba Mirena» izan zen. Familia euskalduneko semea, Goierri euskaldunetan jaioa. Baina nire lehenengo Eskolak erdaldunak izan ziren (Kari-tateko Alabekin, Viatortarrekin, eta batez ere «Escuela Nacional»-ean). Azken honetan, esperientzia polit bat bizi izan nuen: laster jakin ahal izan nuen euskalduna ere izan zitekeela Eskola, nahiz eta erdaldun hutsa ikusten nuen. Aurretik eta ondoren izandako maisu erdaldun porrokatuen tartean, bat iritsi zen Segurara euskaraz zekiena eta Euskal Herria ere maite zuena: Gotzon Egaña. Honi esker jakin genuen mutilok Seguran Eskolak ez zeukala zergatik erdalduna bakarrik izan. Bizipen honen ondoren, neure amak ere bultzatu ninduen etxean neure gauzatxoak erdaraz ez baizik euskaraz idaztera. (Hori dena 1940-1948ko urteetan izan zen).

Ondoren, fraide-bidea hartu nuenez, Arantzazun izan nuen hizkuntzarteko egoera zailaren bigarren esperientzia: hango Kolegioan erdara zen guztiz nagusi, eta

nik ez nuen euskararik izan lehenengo bi urteetan (1948-1950). Horrek biziki atzendu ninduen euskararen erabilpenean, hirugarren urteko euskal ikastaroak (1950-1951), bere asteroko ordubete urriarekin, apenas konpondu zuena. Hurrengo hiru urteak erabakigarriak gertatu zitzaizkidan, ordea (1951-1954): Foruko Seminarioan Aita Imanol Berriatua izan nuen maisu, Kepa Enbeita eta beronen familia lagun, eta nire euskal erro-etera itzultzeko modua izan nuen. Filosofiako urteek egin zuten gainerakoa (1955-1958), eta orduan hartu nituen eginkizunak (lagunen artean irakasle eta *Gure Izarra*-ren zuzendari). Zailtasun-erraztasunak txirikordatuz euskal lanerako gutxi-asko trebatuta atera nintzen, ia hogeituro urteko eskola-esperientzia hartatik (1940-1958). Eta geroztik beti izan dut norberaren baitan eta gizartean hizkuntzaren esperientzia sozialak duen garrantziaz kontzientzia, *Jakin*-eko zuzendaritzan (1958-1962) eta Irakasle gisara Foruan praktikara eramana (1962-1964). Hurrengo urteetarako oinarri pertsonala gertatu zen hori dena.

Ikertzailearen topaketak (1974-1976)

Esandakoa, ordea, ez zen iritsi Zientzia jakin batekiko atxikimendurik sortzera: urte haietan Euskal Herrian ez genuen ezagutzen Soziolinguistikarik, eta horrek historian izan zezakeen aplikazio egokirik. Gure lanak batez ere zernahi gai euskaraz idaztean eta horretarako hizkuntza batu bat moldatzean zeuden. Bagenituen, noski, hizkuntzari esparru berriak irekitzeko asmo eta proiektuak; baina gehiagorik gabe: batez ere praxia zen nagusi.

1964an Goi-Ikasketak egitera joateko aukera izan nuen: hasteko, hizkuntza klasikoei ekitea erabaki zen orduan. Hala ere, Letretako lehen bi urteak burutu ondoren egin behar zen ondoko aukera berezitua, eta Barzelonako Unibertsitateko inguru hartan Historiari ekitea hobe nuela erabaki nuen. Eta hortik Historia Erlijosora heldu nintzen. Besterik ez, artean.

Hona itzultzean, 1971n *Jakin*-en zuzendaritza eman zidaten, eta Anaitasuna-n ere zuzendari lana egin behar izan nuen (1972-1973). Beste zenbait lagunekin lan-modu horietan nabilela, Euskaltzainditik eta Siadecotik egiteko jakin bat eman ziguten *Jakin*-en ari gineno: *Euskararen Liburu Zuria*-ko lehen hiru kapitulu teorikoak egitea: hizkuntza bere baitan (Manolo Pagola) eta hizkuntza bere testuinguru kulturean (Paulo Agirrebalzategi), alde batetik, eta hirugarrena –hizkuntza eta politika– neuri izendatu zidatena.

Zoritxarrez, ni ez nintzen politologoa, edo legegizona, historialaria baizik, eta okerre zena: hizkuntzen historiaz ez nekien deus, esatekorik. Hala ere, lanari historiatik ekitea hobe nuela pentsatu nuen, eta bila hasi nintzen, hobekixeago ezagutzen nuen Errenazimentutik hasita. Tiraka-tiraka hariak hainbat datu jakingarri jarri zizkidan aurrean, gaur oso ezagunak, baina orduan non-

bait galdu batean zeudenak: hasteko, Konetzke, geroxeago Michel Certeau eta lagunak, etab. Batez ere Konetzke alemaniarren *Documentos para la historia social de Hispanoamérica*-k mundu oso bat ireki zidan une hartan, gero zoritxarrez nahi hainbat garatu ahal izan ez dudana. Ondoren, adibidez, *Euskal Hitz* Erakusketan (1987) eta *Euskara, euskaldunon hizkuntza* liburuan (1990) egin ahal izan nuen nire saiakera bat, euskarari berari begira oraingoan.

Honek guztiak moraleja bat du: hizkuntzaren alde sozial hau historialariok ia beti erakunde akademikotatik kanpo landu behar izan dugula (hori azpimarratzen dute, esate baterako, EHUak bere Udako Ikastaroetan edo Diplomatura jakinen batean bakarrik gai hau jorratu izanak). Egoera aldarazi egin behar dugu, bada, eta euskal curriculumuma eta berorri legokiokeen plan estrategikoa egokiak izan daitezke horretarako.

2.- EDUKIEN HAUTAKETA

Ezagutu behar dituen gertaera eta kontzeptuak	Egiten jakin behar dituen prozedurak eta lortu behar dituen trebetasunak	Bereganatu behar dituen balio eta jarrerak
<p>♦ Europako «jatorrizko» herri eta hizkuntzak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Herriak. • Hizkuntzak. • Hizkuntzen paleokronologia. 	<ul style="list-style-type: none"> • Informazio bilaketa-lanak abian jarri: E. <i>Britannica</i> eta <i>Universalis</i> oso egokiak dira argibide orokorretarako, hemen eta geroago-kapituluetan. • Internet ez ahantzi. 	<ul style="list-style-type: none"> • Iragan luzeak dakartzan iraupen-balioak sentiarazi. • Ondare linguistikoa Europak ezagutu dituen jarraitasun eta etenak ikusteko lehen datuak eskaini.
<p>♦ Euskara Europako Historiaurrean</p> <ul style="list-style-type: none"> • Historiaurreko euskal hiztegia. • Lurralde «euskoide» zabala. • Euskaldungoa: lurralde eta herri posibleak. • «Euskal» Akitania harrigarria. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ebrotik Garonarainoko herrien mapa azter. • Akitaniako idazkunak. • Oiartzun eta Ler-gako idazkunak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Euskararen antzinatasun erlatiboa erakutsi. • Euskara isilaren presentzia erreaz kontzientziatu. • Beranduagoko erromatarrak dira horren lekuko. • Hizkuntza mintzatu eta idatzien arteko dikotomia erakutsi.
<p>♦ Indoeuroparrak Mendebalderantz</p> <ul style="list-style-type: none"> • «Indoeuropar» kontzeptua. • Olatu-aldi ezberdinak: zelten aurrekoak, zeltak. • Mendebaldeko hedapena. • Ekarririk hizkuntza(k). 	<ul style="list-style-type: none"> • Indoeuropar-aurrekoen mapak bila eta azter. • Juxtu, K. a. ko mapa indoeuroparra landu. • Grezia eta Erroma bereziki gogoan izan. 	<ul style="list-style-type: none"> • Herriak beren autarkia politikoan bizi daitezke. • Inperio bateratzailerik gabeko Mendebaldea ere izan da.
<p>♦ Euskararen etxeko eta auzoko indoeuroparrak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lehen indoeuroparrak (zelten aurrekoak). • Zeltak. • Kulturen arteko elkarbizitza? • Orduko EHko hizkuntzak hemen eta inguruetan. 	<ul style="list-style-type: none"> • EHko eta inguru hurbileko zelten mapa egin. • Hizkuntza zeltai euskarak hartutako maileguen zerrenda llaburra osa. • Gaur egungo Europako hizkuntza zelten mapa egin. 	<ul style="list-style-type: none"> • Kultura handien heriotzarainoko aldakortasun posiblea. • Gaurko herri txikiak izan dezaketen iragan handiaz ohartarazi. • Irautearen balio ekologiko-linguistikoa azpimarratu
<p>♦ Erromatarren latina Mendebaldean</p> <ul style="list-style-type: none"> • Inperioko hizkuntzak: grekoa eta latina. • Tokian tokiko hizkuntzak. • Galia eta Hispaniako herrien hizkuntzak. • Inperio erromatarra latinaren hedatzaile. • V. mendea: berrikitan latindutako herriak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Erroma eta Italiako haren aurreko herrien mapa. • Inperioa hizkuntza bitan banatuta: grekoa/latina. • Inperio erromatarren mapa orokorra begiratu, herri txikien presentzia adieraziz. • Testu klasikoetan ageri diren herriak bila, batez ere Galia eta Hispanian. 	<ul style="list-style-type: none"> • Kulturak eta sonak hizkuntzen bizitzan duten garrantzia erakutsi. • Hizkuntzak hedatzeke botere politikoak eta kulturak duten indarraz jabetu. • Antzinateko etnografiaren interesa azaldu.

◆ Erromatarrak Euskal Herrian

• Erromatarren presentzia: kronologia eta geografia ezberdinak. • Presentzia moduak. • Aztarnak eta kulturgintza. • Latina eta euskara: toponimia eta maileguak.

• EHko erromatartzearen mapa orokorra. • EHko erromatartzea eta beste zenbait herrietako alderatu (hondakinen balioa, herrietako latinezko ekarpen literarioak...). • Euskararen hiztegi «latino» zaharra erakutsi (hitz-zerrendak...)

• EHko erromatartzearen muga eta lorpenen neurria erakutsi. • Beste tokitako arrakasta erromatarra eta gurekoaren erlatibotasuna ezagutzera eman. • Euskal erresistentzia erlatiboaren arrazoiak landu. • Inperioko latinak euskarari egindako ekarpen positiboak ere erakutsi.

◆ Mende «ilunak» (berant erromatarrak eta lehen Erdi Arokoak)

• Inguru politiko berrian. • Barbaroak Mendebaldeko jaun. • Aurreko kultura «ofizialaren krisia». • Hizkuntza etorri berrien ahu-lezia. • Kristautze-prozesuak Mendebaldeko aldatuan. • Mendebaldeko Eliza erromatarren latina.

• Europako mapa «barbaroaren» iruzkin orokorra. • Estatu barbaroen garapena Penintsulan eta Galian (mapak). • Garaiko testu esanahitsuenean azterketa. • Bisigodoen hizkuntzaz zer dakigu (argibide bilaketa)

• Herrien nortasunari eusteko goi-kultura landuaren premia. • Kristautze-prozesuetako latintze eragina Europan. • Elizako goi-kultura eta hizkuntzen etorkizuna.

◆ Mende «baskoinak» (VI-X. mendeak)

• Euskal herritarren aukera berriak demografia... • Euskal geografiaren berrindartzea? • Hizkuntzaren hedapena? • Kristautzea burutzen: latina, Elizaren hizkuntza ofiziala. • Herrien hizkuntzen lekua EHko Elizan. • Euskara, hizkuntza idatzirik gabeko mintzaira.

• Euskal herritarrei buruzko bisigodo eta frankoen testuak aztertu. • Kanpoko erasoaren mapa kronologikoak egin. • Kristautzea eta euskararen erabilpena (testu-azterketa).

• EHak erakutsi zuen barne-erabakimena. • Indar demografikoaren balio historikoa. • Kultur garapen eskasaren ondorioak.

◆ Erdi Aroko aukerak Mendebaldean (IX-XV. mendeak)

• Inperio eta Erreinu kristauen sortzea, eraketa eta bilakaera. • Mendebaldeko kristautzearen burutzeak. • Latinezko kultura kristauaren garapena: politika eta kultur guneak. • Aukera eta arriskuak. • EH inguruko hizkuntza erromanikoen sortzea eta elkarren arteko lehia (arrakastak eta porrotak). • Erromanikoen garapen «ofizialak» eta literarioak.

• Mende ezberdinetako bizpahiru mapa politikoren alderaketa. • Inperio kristauaren eraketa (Karlomagno...): mapak. • Testu politiko hautatuen iruzkina. • Erdi Aroko kultur guneen geografia. • Penintsula eta Hexagonoko Erreinu berrien kronologia. • Europako Santiago Bidea. • Hizkuntza erromanikoen lehen testuen kronologia.

• Inperio eta herrien arteko harremanen aldakuntza-uneen garrantzia. • Hizkuntzen ordezkate/segiden arteko koiunturen garrantzia. • Kultur sorguneen eta boteregune politikoen arteko lankidetzak. • Erlijiotasunaren zeregin kultural, ekonomiko eta soziala. • Hizkuntza herritarren ofizialtasunerako bideak. • Lingua franca deituen balioak.

◆ Euskal Herriko Erreinu eta Herrialdeen garapena (IX-XV. mendeak)

• Euskal Herriaren erakundetzapen politikoa: Nafarroa eta gainerako Herrialdeak. • Euskal Herrietako kultur guneak: monasterioak. • Euskara eta hizkuntza erromanikoen auzotasuna: lekukoak. • Erdi Aroko euskal izendegia: pertsonena, leku-izenak. • Euskararen lekukoak: testu zaharrak. • Erromaniko nafarra. • Mundu ofiziala: euskararen aukera handi galdia.

• Akitaniako garapen politikoen mapa. • Nafarroako Erreinuaren garapen politikoen mapak. • Euskal Herriko «beste» herrien kokalekuak: arabiarak, frankoak, juduak. • EH inguruetako hizkuntza erromanikoen lurraldeen mapa. • EHko hizkuntzen kokamendu geografikoa (mapa). • Euskal Herriko hizkuntzen mapa. • Euskal monasterioen argazkiak iruzkindu. • Errioxa euskalduna: mapa. • Erdi Aroko euskarazko izendegia: bilaketa.

• Euskaldungoaren hedapen-indar historikoa aditzera eman. • Hizkuntzen arteko orekaren zailtasunak. • Botere politikoak hizkuntzen artean egin ditzakeen hautapenen garrantzia. • Euskal Elizaren euskalduntze mugatuaren ondorioak erakutsi.

◆ Europako Errenazimentua eta Erreforma (XVI. mendea)

• Monarkien garapen «nazionalak» (Frantzia, Espainia, Ingalaterra). • Hizkuntza «nazionalen» garapen kulturalak: literaturak... • Errenazimentua, latinaren eta hizkuntza herritarren artean (humanistak). • Erreforma, hizkuntza herritarren aldeko erabaki eta praxia (protestanteak). • Hizkuntzekiko garaiko pentsamendua eta jarrera kultural eta politikoak. • Hizkuntza «nazionalen» arrakasta: hizkuntza-ideologiak eta politikak. • Herri, nazio eta kultura baztertuen hizkuntzak Europan. • Gaztelania Ameriketan.

• Errenazimentua definitu: kontzeptua eta kronologia. • Errenazimentu kulturalaren Europako mapa. • Europako artista nagusien lauki laburra (aukera eztabaidatu). • Zer ziren «humanistak»: izendegi laburra (id.). • Hizkuntzei buruzko testu ideologikoak. • Nebrija-ren testua gaztelaniari buruz: iruzkina. • Frantzisko I.aren frantsesari buruzko dekretua (1539). • Hizkuntza herritarrei buruzko humanisten testuen azterketa. • Europako itzulpen biblikoen leku eta datak eman lauki batean.

• Egokiera berrian beste hizkuntzek aurrea edo atzera zergatik egin duten iradoki eta azaldu. • Beste herri europarretako garaiko hizkuntza-apologiaren esanahi historikoa argitan jarri.

◆ Errenazimentua eta Erreforma protestantea Euskal Herrian

• Errenazimentua eta euskal literaturaren sortzea (1530-1560: Etxepare). • Erreginaren Erreformaren ahaleginak: Testamentua Berria (1571: Leizarraga). • EHko euskalariaren euskararekiko pentsamendua. • Lorpen literario mugatuak.

• Etxepareren «Sautrela» eta «Kontrapasa» aztertu. • Etxepareren testuak beste erbesteko batzuekin alderatu. • Nafarroa Behereko Erreformaren lorpenak: itzulpen-taldea eta TB. • Leizarragaren hitzaurreak aztertu: zein ideia linguistiko ditu. • Garaiko euskalari apologisten liburuak. • Euskarazko lehen saio literarioaren segidarik eza (azalpen kronologikoa).

• Garaian garaiko korrante bizi berriekin batera jardutearen balioa. • Euskaraz lan egitearen emankortasuna. • Erdaraz eginez (bakarrik) euskarari lagundu nahiaren emaitza eskasak.

◆ Barrokoaren mendea Mendebaldean (XVII. mendea)

• Erreforma Katolikoaren emaitzak: literatura erlijiosoa. • Espainia eta Frantzia Europako hegemoniaren borrokan. • Urrezko bi mende literario elkarren segidan, Espainian eta Frantzian. • Espainiararen arrakastak aurreko mendetik hasita. • Frantsesaren arrakastak Hexagonoan eta Europan ere. • Hizkuntza baztertuen egoera Europan.

• Mende hasiera eta bukaerako Europako maparen azterketa. • Mende honetako arrakasta literario handien berriak bilatu (Frantzia, Espainia). • Zertarako Akademia bat Frantzian? (1635). • Luis XIV.aren konkistak eta lurralde berrietarako dekretuak: testuen azterketa.

• Hizkuntza politika landu eta ohartu baten garrantziaz jabetu. • Geroko Borbondar espainolen hizkuntza-politika ulertzeko giltzarriak eman. • Hizkuntza ofizialen normalizazioaren garrantzia (Akademiak).

◆ Euskararen lorpenak eta mugak (XVII. mendea)

• Erakunde zibiletatik baztertuta. • Elizaren ezagumendu ofizialak: Kalahorra, Iruñea, Baiona. • Euskal literaturaren birsortzea. Sara-Donibane. • Obra maisu baten testuingurua: Gero (1643). • Hegoaldeko ezizunak.

• Gernikako Batzarrak eta euskara (1613-1633). • Kalahorrako Sinodaletako testuen azterketa historikoa. • Klaberiarren poema, Garibairi buruz: testu iruzkindua. • Axularrek zergatik halako laudorioa Etxauz Apezpikuari buruz? • Euskararekiko Axular-en ideiak (1643). • Euskarari buruz garaiko autoren espainolen testuak.

• Euskararen ofizialtasunerako zailtasunak erakutsi (dependentsia politikoak eta hizkuntza). • Euskara kultur bizitzan erabiltzearen garrantzia. • Boterearen babesaren garrantzia, euskararen garapen sozialean (Eliza)

◆ «Argien» mendeko aukerak (XVIII. mendea)

• Borbondarren hizkuntza politikak Frantzia eta Espainian, Luis XIV.aren ondotik. • Kataluniako kasu eredu (1714...). • Ameriketako burubide politiko-linguistiko espainola. • Iraultzaren bi jokamolde: herri-hizkuntzak propagandarako, ala frantsesa bakarrik iraultza egiteko?

• Katalanari buruzko dekretuetako testuen azterketa. • Ameriketako hizkuntza-politika «argizatua» (1772). • Rousseau-ren ideia linguistikoak: testuak. • Frantsesaren arrakasta munduan (mapa?). • Alemanaren lorpen berriak: idazleen lauki arrazoitua. • Iraultzako testu kontrajarrien alderatzea

• Hizkuntzarekiko gogoeten eragin sozial eta politikoaz jabetu. • Borbondarren eta Iraultzako azken erabakien segida edo jarraitasuna erakutsi. • Hizkuntzaren eta bostere politikoaren berezko zerikusia argitan jartzea

◆ EHko XVIII. mendea Ipar-Hegoaldeetan

• Iparraldeko garapen literarioa eta Iraultzaren oihartzunak. • Koroa eta euskal Erakunde Publikoak: harreman zailak. • Hegoaldean Loiolako josulagunen lanak: Larramendi gidari (1729...). • Euskal Herriko Adiskideak eta euskara. • Gipuzkera eta bizkaieraren literatur jaiotza. • Testu idatzen tamaina, zabalkunde eta xedeak. • Koroaren hizkuntza-politika: Aranda eta beste.

• Etxeberri Sarakoaren zenbait ideia linguistikoren azalpena. • Larramendiren gramatikako testuak. • Larramendiren gramatika eta hiztegia, garaiko lan akademikoen testuinguruan. • Zalduntxoeren testuren bat (azterketa). • Euskara Eskolara ote? • Arandaren debekua Kardaberaz-i (testu-azterketa). • Iraultzako euskal testuak.

• Kultur gaiak euskaraz ematearen balioa (Etxeberri). • Euskararen inguruko politikaz sortutako eztabaiden garrantzia. • Euskararen erabilpen eta izen onerako euskararekiko idazlan arauemaileen garrantzia. • Talde-giroko lanaren emankortasuna (Loiola). • Euskararen kultura isilarazteko ahaleginen esanahiaz ohartarazi (Aranda)

◆ Estatu liberal berrien barnean (XIX. mendea)

• Estatu-egitura berrien garapena. • Ideologia eta proiektu sozio-kultural kontrajarriak. • Amerikaren independentzia. • Iraultza industrialak. • Migrazioak: emigrazio eta inmigrazioak. • Gerra zibilak. • Kultur tresna ofizial berriak: Eskola...

• Bi testu kontrajarri: Iraultzakoa eta alemanen batena? • Hizkuntza-abertzaletasun berrien Europako lekukoak (mapa). • Austria-Hungariako hizkuntzekiko testuak. • Lege eta arauetan aipatu ere gabeko herri-hizkuntzak. • Arrakasta literarioa lortu zuten herri txikien kasuren bat: Finlandia? • Hizkuntza da «aberria».

• Hizkuntzen aurkako eraso politikoen bi motak erakustea (isilduarena, zigortu edo debekatuarena). • Herrien erresistentzia eta sormenaren balioa. • Estatu moderno erakundeztatuagoaren arriskuak erakutsi.

◆ EH iraultza liberalaren aurrez aurre (1789-1876)

• Euskaldunak gerra zibilen artean, eta emigrazio-bideetan. • Euskal Erakundeen ezabatzea (1839, 1876). • Lehen mende-erdiko euskararen lorpen literarioak eta eragozpenak (Gerriko). • Hizkuntzarekiko kontzientzia argitzen, baina aterpe ofizialik gabe. • 1850etik aurrerako kulturalak: Euskal Jaiak.

• Iraultzak «patois» deituei buruz esandakoak. • Humboldt-en euskararekiko iritziak. • Euskara Bizkaiko Batzarretan (testua). • Euskara eskolara? • Euskararekiko kontzientzia kultural eta politiko berria. • Iparraldea kultur eragile: Abadia eta Euskal Jaiak. • Iparragirreraren euskararen aldeko kantak ikasi.

• Iraultza liberalen hizkuntzekiko egitarau politikoaz jabetu. • Horrek piztu zituen erresistentziak erakutsi. • Euskaltzaletasun berriaren lehen saiok agerian jarri

◆ Bi menderen arteko gatazka europarrak (1870-1939)

• Europako Estatu «nazional» eta kolonialistak (1884...). • Iraultza Industrialak eta

• Kontinente europarreko hizkuntza-gatazka: testu txekiar bat? • Kataluniako hiz-

• Europako zenbait herriren arrakastak erakutsi. • Hizkuntzekiko eztabaida politikoen

migrazioak. • Frantziako III. Errepublika (1871-1914). • Herri txikiak abertzaletasunak: Otomandarrak, Ingalaterra, Austriako Inperioa, etab. • Europako hizkuntza «txikien» garapen literario-kulturalak. • Gerrate Handia (1914). • Estatu berriak Europan. • Espainiako Gerra (1936). • Nazismoa eta II. Mundu-Gerratea.

kuntza-abertzaletasun: testuak (Manresa, etab.). • Emigrazio «linguistikoak»: EEBB-etako alemanen Eskolak, galestarrak Argentinan. • Eztabaida parlamentario baten antzezpena. • Renaiença katalaneko hizkuntza-arrakastak (lauki bat egin: obra, autorea, urtea). • Penintsula Iberiarreko hizkuntzen mapa. • II. Errepublikako hizkuntzekiko testuak.

bidea deskribatuta utzi. • Politikarien «diskurtso linguistiko» argitan jarri.

◆ Eusko Pizkundea (1876-1936)

• Euskal Hegoaldea, Espainiako proiektu kanobistaren barnean. • EHko Industri Iraultza eta demografi aldakuntzak. • Estatu Espainolaren proiektu kulturala. • Euskadungoaren demografia: zenbat euskaldun? • Euskal Hiriburuak kultur taldeak eta hizkuntza. • Hizkuntza-abertzaletasunaren agerpena. • Hizkuntzaren aldeko herritar, kultural eta ofizialen lanak. • Alderdi politikoen euskararekiko jarrerak. • Aldizkariak, argitalpenak. • Euskarazko azalpen kulturalen garapena. • Gidari eragileak: J. Manterola, G. Mujika, Aitzol... • Euskaltzaleak elkartzeko ahaleginak (Hendaia, 1901; Hondarribia, 1902). • Euskaltzaindia.

• Zenbait pertsonaiaren biografiak idatzi: Abadia, Manterola, Campión, etab. • Mapa batean Eusko Pizkundeko idazle handienen sorterriak eman. • Eliz Sinodoetako testuak (Gasteiz). • Campión-en euskararen aldeko arrazoiak bildu (Gramática, 1884). • Katekesirako hizkuntza-debekuak (1902). • Euskal Eskolaren eskea. • Talde euskaltzaleak: Euskal Esnalea (1907). • Alfonso XIII.aren Oñatiko hitzaldia. • Euskaltzaindiaren sorrera-agiria. • Diktaturako dekretuak (1924, 1925).

• Estatu modernoak hizkuntza-politika malgu bat eramateko dituen ezinak. • Eusko Pizkundek ekarri zuen euskararekiko praxia eta gogoeta teorikoa erakutsi. • Eskuratutakoaren balioa eta mugak aditzera eman. • Hizkuntzak alderdi politikoen egitarauetan ageri dira jada.

◆ Gerraondoko diktadura luzean (1936-1975)

• Iparraldea bere bide eta kronologian (gerratea, erresistentzia). • Gerrate Hotza. • Frantziako politikaren une, arazo eta lerro nagusiak. • Frankismoa munduko testuinguru politikoan. • Frankismoaren lehen bi hamarkadak: falangea eta autarkia. • Gerra hotza eta frankismoaren nazioarteko onarpenak. • Frankismoa garapen ekonomikoaren ahaleginean. • Franco-ren azken urte zailak (1968-1975).

• II. Mundu-Gerraren osteko Europako mapa. • Frankismoaren kronologia epekatu bat eratu. • Frantzia eta kolonietako mapa kronologiko bat egin. • Deskolonizazioaren mapa datatua egin. • De Gaulle Québec-en: prentsa atalak. • Katalanaren debekuak frankismoan. • Deskolonizazioa eta hizkuntzak (Aljeriako kasua?). • Kolonia ohietako jatorrizko hizkuntzen mapak.

• Kolonialismoak hizkuntzekiko izan duen politika argitan jarri. • Hizkuntza estatal ofizialen aldeko politika orokorrak agirian utzi. • Pertsekuzio linguistikoaren errealitatea erakutsi. • Hizkuntza-politiken aldakuntzen ahalbidea erakutsi.

◆ Euskara eta euskal kultura frankismoan

• Egoera politiko ez-demokratikoa. • Mintzatzailearen pertsekuzioa eta espazio ofizialen debekua. • Euskaltzale erbestertuak, Europan eta Ameriketan. • Hizkuntza-erakundeak geldiarazita. • Lehenengo debeku praktikoak eta berehalako zailtasunak (1936-1956). • Euskal Erbestearen eta Bar-

• Euskararen debekuak: testuak. • Euzko-Gogoaren salakuntzak. • Politikarien salakuntzak: J. A. Agirre. • 1939-1950. urteetako euskarazko argitalpen-lekuen mapa kronologikoa egin. • Euskaltzaindiako argitalpenen gerraosteko kronologia finkatu lauki batean. • Euskaltzaindiaren frankismo

• Euskararen pertsekuzioa deskribatuta utzi. • Herritarren hizkuntza-borondate euskaltzalea azpimarratu. • Euskararen iraupen eta berreskurapenerako ekimenak eta zailtasunak aditzera eman. • Lortutakoak eta lortu gabeak erakutsi.

nearen arteko harremanak. • Eskola, hedabide eta administrazioen jarrera linguistikoak. • 1956ko bihurtzea. • 1960etako hizkuntzaren aldeko ekimen sozial nagusiak: ikastola, prentsa, irratia, argitalpenak, euskararen normalkuntza, alfabetatzea eta abar.

garaiko Batzarretako berriak bildu: urteak, lekuak, gaiak. • Herriko ikastolaren historia laburra idatzi. • Z. Argia-ren lehen alea (1963) aurkeztu ikasgelan. • Alfabetatzea noiz hasi zen herrian? • Etxean duzuen euskal libururik zaharrena aztertu. • Euskara Batuaren urte esanahitsuenak finka.

◆ Gerra Hotzetik eta Diktaduratik Autonomiara

• Krisi ekonomikoan (1973...). • Sobiet Batasunaren desagertzea. • Islamismoaren molde politiko berriak. • Munduko eskualdeen arteko desorekak. • Txinaren irekiera erlatiboak. • Teknologia berrien jaitzea. • Ekonomia eta politika globalizatuak. • Munduko arazo ekologikoak. • 2001eko bihurtzea? • Espainiako demokraziaren lortu eta ezinak.

• Konstituzioko hizkuntza-artikuluei buruzko Kongresuko eztabaida. • Estatu Espainoleko hizkuntzei buruzko Estatutuetoako testuen azterketa konparatiboa. • Hemerotekean bilaketak egin, eta aurkitutakoa ikasgelan komentatu.

• Aurreko mendeetakoaren ondoan eman diren pausu berriak. • Egoerak dituen mugak, Estatu Espainolean eta Errepublikan Frantsesean.

◆ Hegoaldean Autonomiaren hamarkadak (1975-2002)

• Estatutua (1979) eta Hobekuntza (1982): euskararen ofizialtasuna, koofizialtasuna. • Horren ondoriozko hizkuntzarekiko Legeak. • Hizkuntza-Erakunde ofizialak. • Euskararen aldeko molde guztietako ekimen herri-tarrak. • Aldizkari, argitalpen, hedabide, administrazio irakaskuntza eta abarretako euskararen presentzia (lortua, lortzekoa).

• Nafarroako hizkuntza-mapa (hiru eremuak). • Hiru Probintzietako mapa soziolinguistikoaren aurkezpena. • Euskara herri-eskoletan: tokiko elkarrizketak helduei. • Euskararen presentzia administrazioan, industrian, merkataritzan: test praktikoak eta elkarrizketak. • Euskal liburugintzaren garapena (estatistika eta grafikoak). • Internet: Euskarari buruz dagoen informazioaren azterketa.

• Autonomiarekin lortu direnak azaldu. • Herri ekimenak egindakoak erakutsi. • Herrialdeen arteko ezberdintasun instituzional eta soziolinguistikoak erakutsi. • Iparaldearen kasu berezia. • Nafarroako dinamika.

3.- BIBLIOGRAFIA

3.1.- Bibliografia orokorra

Hizkuntzen historia soziala lantzeko nahitaezkoa da lehenik mintzaira bakoitza bizi izan den gizartearen historia ezagutzea: herrien historia, alegia, gure kasuan Euskal Herrikoa, eta beste herrietan bakoitzarena.

Gizarte-historia orokorren ezagutza hori, lortuzat ematen dugu hemen, eta horretaz bibliografiarik ez dugu aipatuko.

3.2.- Hizkuntzei buruzko bibliografia

Hizkuntzen historia sozialari orokorrean erantzungo dion obra bakar osorik ez dago merkatuan, dakidanez. Hizkuntzen eta/edo Literaturen historia orokorrak begira daitezke, betiere iragan historiko horietan alde sozialak bilatuz. Hain zuzen, horixe izaten da jeneralean zailena, alde sozial hori aski garatuta aurkitzea.

Entziklopedia orokor batzuetan hizkuntzen historia sozialaz hainbat albiste bildu ezinik ez dute irakasle-ikasleek; batez ere *Enc. Universalis* frantsesa eta *Britannica* iparramerikarra ditugu gogoan. Dena den, inguruko zenbait hizkuntzen historiak gogoraraziko ditugu hemen, neurriren batean baliagarriak direlakoan:

Europa, Hexagonoa, Penintsulako hizkuntzak

WALTER, H. (1994): *L'aventure des langues en Occident*. Robert Laffont, Paris.

GIORDAN, H. (1992): *Les minorités en Europe. Droits linguistiques et Droits de l'Homme*. Éditions Kimé, Paris.

TOVAR, A. (1968): *La lucha de lenguas en la Península Ibérica*. Gregorio del Toro, Madrid.

ELKARLANEAN (1973): *Les dialectes romans de France à la lumière des atlas régionaux*. CNRS, Paris.

Frantsesa

COHEN, M. (1987): *Histoire d'une langue: Le français*. Messidor, Paris.

DE CERTEAU, M; JULIA, D.; REVEL, J. (2002 [1975]): *Une politique de la langue. La Révolution française et les patois: l'enquête de Grégoire*. Gallimard, Paris.

Galiziera

ELKARLANEAN (1986): "Lingüística, Sociolingüística e Literatura galaico-luso-brasileira-africana de expressao portuguesa". Rev. O Ensino (6/10 zenb.), Pontevedra.

Gaztelania

LAPESA, R. (1986): *Historia de la lengua española*. Ed. Gredos, Madrid.

LÓPEZ MORALES, H. (1998): *La aventura del español en América*. Espasa, Madrid.

SOLANO, F. (1991): *Documentos sobre política lingüística en Hispanoamérica (1492-1800)*. CSIC, Madrid.

Ingelesa

FERNANDEZ, F. (1982): *Historia de la lengua inglesa*. Gredos, Madrid.

NACCRUM, R.; CRAN, W.; MACNEIL, R. (1992): *The Story of English*. Faber and Faber, London/Boston.

Italiera

MIGLIORINI, B. (1969): *Historia de la lengua italiana*. Gredos (2 lib.), Madrid.

Katalana

DUARTE, C.; MASSIP, A. (1984): *Síntesi d'història de la llengua catalana*. Edicions La Magrana, Barcelona.

FERRER I GIRONÈS, F. (1985): *La persecució política de la llengua catalana*. Edicions 62, Barcelona.

NADAL, J. M.; PRATS, M. (1982): *Història de la llengua catalana*. Edic. 62, Barcelona.

Okzitaniera

BARIS, M. (1978): *Langue d'oïl contre langue d'oc*. FEDEROP, Lyon.

BRUN, A. ([1923]1973): *Recherches historiques sur l'introduction du français dans les Provinces du Midi*. Slatkine Reprints, Genève.

Portugesa

SILVA NETO, S. da (1979): *História da língua portuguesa*. Presença, Rio de Janeiro.

3.3.- Euskarari buruzko bibliografia

Euskarari dagozkionetan, bitakoren bat: a) langaiak argitalpen ugarietan sakabanatuta daude, edo b) sintesi bakar batzuetan begira daiteke behar dena.

Ez da ahaztu behar Euskal Literaturako Historietan (Villasante, Mitxelena, Sarasola, Urkizu) alde soziala nabarmenki ageri dela sarritan: eskuera dagoen hori jaso eta antolatu egin behar da, bilaketarako ikasleari alde aurretik eman dakiokeen galdera-zerrenda lagungarri baten bidez. Hona oraingoz proposatuko duguna:

ALLIÈRES, J. (1979): *Les Basques*. PUF, Col. "Que sais-je?", Paris.

CIERVIDE, R. (1991): *Euskal Herria: Lugar de encuentro de Lenguas y Culturas*. Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte, Vitoria-Gasteiz.

- ECHENIQUE ELIZONDO, M. T. (1987): *Historia lingüística vasco-románica*. Paraninfo, Madrid.
- ELKARLANEAN (1995): *Euskara atzo eta gaur / Pasado y presente de la lengua vasca / Passé et présent de la langue Basque*¹. Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco / Gouvernement Basque, Vitoria-Gasteiz.
- INTXAUSTI, J. (1990, 1992): *Euskara, euskaldunon hizkuntza/Euskera, la lengua de los vascos/Euskara, la Langue des Basques*. Eusko Jaurlaritza / Donostia: Elkarlanean, Vitoria-Gasteiz.
- JIMENO JURIO, J. M. (1997): *Navarra. Historia del euskera*. Txalaparta, Tafalla.
- LAFON, R. (1973): *La langue basque*. Bulletin du Musée Basque, Bayonne.
- LANGKIDE EZBERDINAK: *Bidegileak liburuxka-saila*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- MICHELENA, L. (1964): *Sobre el pasado de la lengua vasca*. Auñamendi, San Sebastián.
- MICHELENA, L. (1977): *La lengua vasca*. L. Zugaza, Durango.
- MERINO URRUTIA, J.B. (1978): *La lengua vasca en la Rioja y Burgos*. Logroño: Diputación Provincial.
- SIADeco (1977): *Euskararen Liburu Zuria / Libro Blanco del Euskara*. Euskaltzaindia, Bilbao.
- SIADeco (1979): *Hizkuntza borroka Euskal Herrian / Conflicto lingüístico en Euskadi*. Euskaltzaindia, Bilbo.
- TORREALDAI, J. M. (1977): *Euskal idazleak, gaur*. Jakin (EFA), Arantzazu.
- TORREALDAI, J. M. (1997): *Euskal kultura gaur*. Jakin, Donostia.
- TORREALDAI, J. M. (1998): *El libro negro del euskera*. Ttartalo, San Sebastián.
- TOVAR, A. (1980): *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*. Alianza Editorial, Madrid.
- URQUIZU, P. (dir.) (2000): *Historia de la literatura vasca*. UNED, Madrid.
- YRIZAR, P. (1973): *Los dialectos y variedades de la lengua vasca. Estudio lingüístico-demográfico*. Amigos del País, San Sebastián.
- ZUAZO, KOLDO (1999): *Arabarrak Euskararen Herrian*. Arabera, Gasteiz.
- ZUBIAUR, J.R. (1990): *Las ideas lingüísticas vascas en el siglo XVI*. Univ. de Deusto, Mundaiz, San Sebastián.

¹ CDRom-a da, eta berorretako edukia Internet-en ere bila daiteke: www.euskadi.net.